

## BESTELAKO XEDAPENAK

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

### 4512

*110/2022 DEKRETUA, urriaren 4koa, zeinaren bidez urgentziako deklaratzeko baita Gipuzkoako Foru Aldundiak, nahitaez desjabetzeko, honako eskubide eta ondasun hauek okupatzea: Ataunen, GI-3151 errepideko 1,370-1,470 eta 2,270-2,350 KPen artean lerradurak egonkortzeko proiektuaren proiektu berrikusia (5-ME-36/2020-RP) burutzeko beharrezko ondasunak eta eskubideak.*

Gipuzkoako Foru Aldundiak, «GI-3151 errepideko 1,370-1,470 eta 2,270-2,350 KPen artean lerradurak egonkortzeko proiektuaren proiektu berrikusia (5-ME-36/2020-RP)» delakoaren espediente formalki onartu eta gero, proiektua gauzatzeko lur guztiak erabiltzeko beharra adierazi zuen.

Bide Azpiegituretako Departamentuko foru diputatuak 2022ko martxoaren 10ean emandako Foru Aginduaren bidez, honako hau ebatzi zuen: nahitaezko desjabetze-espediente hastea eta ondasunen eta eskubideen zerrenda jendaurrean jartzea, hilabeteko epean, prentsan eta 2022ko martxoaren 22ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (55. zk.). Geroago, 2022ko maiatzaren 31n egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru Aldundiak Eusko Jaurlaritzari proiektuak ukitzen dituen eskubideak eta ondasunak okupatzeko urgentziaren adierazpena eskatzea erabaki zuen, Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan ezarritakoa betetzeko.

Urgentziaz okupatu beharreko ondasunak eta eskubideak zehaztuta eta banakatuta agertzen dira espedientean jasotako zerrendan, identifikazioak egiteko datu askirekin agertu ere. Zerrenda hori jendaurrean jarri zen egoki zenean, eta alegazio bat aurkeztu zen, administrazio-espediente adierazten denez.

Zerbitzu teknikoek ikusi dutenez, ez dago espediente izapidetzeko inolako hirigintza-oztoporik.

Ondasun eta eskubide horiek okupatzea luzaezintzat jotzen da, honako arrazoi hauengatik:

Urkillaga eta Aia (Ataun) auzoetarako GI-3151 errepideak lerradurak ditu 1,370-1,470 eta 2,270-2,350 KPen arteko zatietan. Lerradura horiek eragina izan dute errepidearen betegarrietan, eta, horren ondorioz, deformazio nabarmenak sortu dira plataforman. Deformazio horiek eragotzen dute ibilgailuek segurtasunez zirkulatu dezaten.

Hortaz, errepidearen egoera eskasa da. Gainera, mugimenduak areagotzen ari dira zati ezegonkorretan.

Zati ezegonkor horietan plataformaren deformazioak nabarmen handitzeko arriskua dago, eta ondorioz trafikoa eten egingo litzateke. Premiazkoa da, beraz, bi zati horien egonkortze-lanei ekitea.

Proiektuak jasotzen dituen lanak gauzatzean, errepidearen egonkortasun egoera lehengoraztea lortuko da, bai eta bidearen segurtasuna berreskuratzea ere.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 26.1.f artikuluan xedatzen denez, Eusko Jaurlaritzari dagokio nahitaez desjabetu beharreko ondasunak eta eskubideak urgentziaz okupatu behar direla deklaratzeko, nahitaezko desjabetzeak honako hauek hartzen dituenen: burutze-unitate osoak, lurraldearen

2022ko urriaren 20a, osteguna

hirigintza-antolaketari dagozkion sistema orokorrak edo antolaketa horren elementuren bat eta hiri-lurzoruan egin beharreko banakako jarduketak. Goian aipatutako lege horrek 26.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, lurralde-antolamenduaren eskumenak dituen sailburuari dagokio horretarako proposamena aurkeztea Jaurlaritzaren Kontseiluari.

Hori dela eta, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuak proposaturik, Gobernu Kontseiluak, 2022ko urriaren 4ko bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.— Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan eta Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko Legearen 26. artikuluan xedatutakoari jarraituz, nahitaez desjabetzeko, «GI-3151 errepideko 1,370-1,470 eta 2,270-2,350 KPen artean lerradurak egonkortzeko proiektuaren proiektu berrikusia (5-ME-36/2020-RP)» burutzeko beharrezkoak diren ondasunak eta eskubideak Gipuzkoako Foru Aldundiak urgentziaz okupatu beharrezkoak direla deklaratzeko. Berariaz abiarazitako espedientean jasotako zerrendan daude zehaztuta eta banakatuta ondasun eta eskubide horiek.

#### AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aurretiaz berraztertze-errekurtsoa jar dakioko Gobernu Kontseiluari, hilabeteko epean, edo, bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean. Epeok dekretu hau argitaratu eta hurrengo egunean hasiko dira.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko urriaren 4an.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburua,  
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.